



Milakabilaka ariketa aurkeztu dute gurean

TOLOSALDEA ▶ Bertako eragileen eta norbanakoen atxikimendua lortzeko lana burutuko dute

XEDEA ▶ «Euskal Herriak jasaten duen gatazka politiko armatua gainditzeko apustua» egiten du ▶ 2



L. GARCIA

Ezkeltzuko larreak, irailera arte irekiak

ZIZURKIL ▶ Herriko zortzi baserritako 45 behi eraman zituzten atzokoan, Ezkeltzuko III. Larre Irekiera ekitaldiaren harira ▶ 5



TOLOSA ▶

Done Jakue Bidearen II. Astea antolatu dute

Done Jakue Bideko Lagunen elkarteak hainbat ekitaldi egingo ditu datorren astean ▶ 2

Ekitaldiko aurkezpena. HITZA

LIZARTZA ▶

Tolosaldeko Etxerategen «presoen egoera gogorra» salatu du

Hautetsiengana zuzenduko dira «euskal preso politikoen eskubideak bermatuak izan daitezen» ▶ 6

hitza

Harpidedunen
txokoa

GAUR Ibarako Garagardo Festan afaltzeko zozketatu ditugun 2 afarien harpidedun irabazlea honako hau da:
▶ Arkaitz Arostegi Arin (Villabona)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



3 karpa
Jaki tipikoak
24 garagardo mota
5 KALIMOTXO ezberdin

maiatzak
3, 4, 5 eta 6

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Milakabilaka aurkeztu dute eskualdean

Eragileen eta norbanakoen atxikimendua lortzeko lana egingo dute

ERREDAKZIOA

«Errespetua Euskal Herriari; errespetua herritarrei, guztien eskubideei; errespetua herritarren erabakiari...». Aldarri hauekin aurkeztu zuten atzo eskualdean milakabilaka ariketa. Bertan izan ziren Tolosaldean ariketari baietza eman diotenariko batzuk, «beste batzuk ezin izan baitute azaldu».

Aurkezpenaren asmoa, hain zuzen ere, milakabilaka ezagutzera ematea izan zen, «gaurtik aurrera atxikimendu gehiago lortzeko». Hala, atzo hasi eta

ekainera bitarte, agiriarekin bat egiten duten elkarten atxikimendua lortu nahi dituzte, kultur, kirol, aisialdi, auzo elkarte, ikastetxe etabar luze bateko ordezkarekin. «Buru-belarri ariko gara eskualdeko partaideok lan hau burutzen», azaldu zuten atzokoan.

Baina ez dute elkarten atxikimendua lortu nahi soilik, izan ere, norbanakoen parte-hartzea ere «ezinbestekotzat» jo dute arduradunek. Horretarako aukera bat baino gehiago jarri dute herritarren eskura. Esaterako, ekainaren 16an Tolosako Triangulo plazan,



Milakabilaka ariketaren aurkezpena, atzo, udaletxeko batzar aretoan. I. TERRADILLOS

Zer da milakabilaka?

Herritarren ariketa bat da milakabilaka. «Euskal Herriak jasaten duen gaztazka politiko armatua gainditzeko apustuan kokatua». Halaber, herritar ororen parte-hartzea bultzeko helburuarekin sortu zuten eta, beraz, herritarra da bertan protagonista.

Ariketa honen bultzatzaileak ezaldu dutenez, «guztiekin herritar gisa hartzen dugu

parte, batzuk besteak baino ezagunagoak izan arren».

Euren manifestua «errespetua eta demokrazia» aldarrikatzen du, izan ere, «Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarrek erabaki behar dute».

Bestalde ez dela «eragile politiko bat, ez eta sozial bat ere» aldarrikatu dute milakabilakatik. ◀

09:00etatik 13:00etara argazkia atera ahal izango dute, «horrerata bereziki etorriko den kamioian». Ondoren, 13:00etan atxikimendua eman duten guztiek agerraldia egingo dute.

Bono-pinak salgai

Ariketa hau guztia finantzatzeko bono-pinak jarriko dituzte salgai bost euroren truke. Hala, argazkia atera eta pina hartzen dutenek, «argazkia eraman ahalko dute etxera», arduradunek jakitera eman dutenez.

TOLOSA ▶ KULTURA

Done Jakue Bideak «herrian duen garrantzia» erakusketako ekitaldiak

Done Jakue Bidearen 2. Astea antolatuta du hurrengo astean Bideko Lagunen elkarteak

ERREDAKZIOA

«Done Jakue bideak Tolosarentzat duen garrantzia erakutsi asmoz», Done Jakue Bidearen 2. Astea antolatuta du Tolosako Done Jakue Bideko Lagunen elkarteak hurrengo astean. Hain zuzen ere, herenegun egin zuten ekimenaren aurkezpena Donostian eta bertan izan

ziren Josemi Gomez Elozegi Tolosako Udaleko turismo zinegotzia, Elena Rodriguez erromesaren Tolosako bulegoko arduraduna, Millan Telleria Tolosaldeko Zaldien Lagunen elkarte ordezkarria, Jose Mari Santamaria Tolosan jarriko duten *Bidearen Lagunen* egurrezko tailuaren egilea eta Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzailea.

Ekitaldian Done Jakue bidearen garrantziaz eta hau Tolosatik igarotzeak duen esanahiaz aritu ziren. Jarraian, antolatuta dituzten ekitaldien berri eman zuten. Datorren asteazkenean, hilaren 9an izango da lehendabiziko ekitaldia, Albada musika eta dantza taldearen ikuskizuna, hain zuzen ere. Egun horretan bertan, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan Done Jakue Bideko musika joko dute, eta ondoren hitzaldia izango da historian zehar tolosarrek Bidearekin izan duten harre-



Donostian egindako aurkezpeneko une bat, herenegun. HITZA

manaz, Pablo Garciaeren eskutik. *Bidearen ondare kulturala Euskadin* gaia ere landuko dute hitzaldian Arantxa Arzamendirekin, Eusko Jaurlaritzako Ondarearen zuzendariarekin, hain zuzen. Oscar Terolek egingo ditu moderatzaile lanak.

Larunbatean, hilaren 12an izango dira hurrengo ekitaldiak. 17:00etan Arrameleko elizan Mundo Nuevo talde donostiarren antzezlan izango da ikusgai; 18:30ean zaldizko erromesal harrera egingo zaie eta 20:30ean erromesaren elizkizuna izango da Santa Maria parrokian. Azkenik, hurrengo egunean, 08:00etan irteera izango da —oinez edo bizikletaz— Bideko Lagunen elkartearekin batera. Tolosa-Beasain bidea egingo dute.

IBILBIDEA ▶

MAIATZAK 12, LARUNBATA

09:00. Santa Maria plazan elkartuko dira zaldunak, eta bertatik Izaskungo ermitara abiatuko dira. Izaskundik Belabieta aldera joango dira. Amasamendi mendira heldu eta Leitzarango trenbide zaharretik Tolosa aldera Oialume sagardotegira iritsi arte.

12:30-13:00. Bazkaria egingo dute Oialume sagardotegian.

16:00. Done Jakue Bide zaharretik Tolosa aldera abiatuko dira. Andoaindik, Villabonatik eta Anoetatik igaroko dira.

18:30. Santa Maria plazan harrera egingo diete.

ALEGIA ▶

Languarre Txirrindulari proba egingo dute gaur

Alebinen eta infantilen mailak ariko dira lasterketan, 16:30etik aurrera

ERREDAKZIOA

Gaurkoan kirolak tarte berezia izango du Alegian. Izan ere, Languarre Txirrindulari proba burutuko dute arratsalde batean. Languarre Txirrindulari elkarteak antolatuta du, hain zuzen ere, 16:30etik aurrera garatuko den lasterketa.

Bertan, Tolosaldeko txirrindularitza eskolako txirrindulari alebinek eta benjaminek hartuko dute parte. Fabresa inguruko zonaldean burutuko dute proba gazteek. Hori dela eta, antolatzaileek deia luzatu dute inguruko eta bereziki Larraitx inguruko bizilagunei zuzenduta, arreta berezia jar dezatela autoekin, errepide horietan txirrindulari gazteak ibiliko baitira.



UROLA GARAİKO LANBIDE ESKOLAK

Mekanika arloan ingeniariak behar ditu.

Makina-erremintan esperientzia aintzat hartuko da.

dior.ugle@ugleskola.org

Tfnoa: 943/725477

ZUMARRAGA

KULTURA ▶

Kultur egitarau oparoaz gozatzeko aukera maiatzean

Erakusketak, kontzertuak, dantza emanaldiak, zinema, hitzaldiak... Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte

INIÑO TERRADILLOS

Ekitaldiz beterik dator maiatza, erakusketa, kontzertu, hitzaldi, antzerki eta dantza saio ugari-ekin, besteak beste.

ARANBURU JAUREGIA

Julio Pardoren pintura erakusketa. Hilaren 19ra arte izango dira ikusgai bere azken lau urteetako lanak.

750 rallyko argazkien erakusketa. Ekainaren 2ra arte izango da ikusgai Gipuzkoako argazkigintza elkarteak antolatuta.

Nestor Basterretxea eta Iñaki Epelderen erakusketa. Tolosako Ekinbide Etxeak bere 40. urteurrenean antolatua, maiatzaren 25etik ekainaren 30era.

KULTUR ETXEA

Erretzearen uzteko tratamendua. Ekainak 20ra arte izango da ikastaroa. Asteazkenero, 15:00etan. Gizarte zerbitzuek antolatuta.

Haurralde fundazioaren argazki erakusketa. Hilaren 20ra arte. Proiektzioa hilaren 18an. **'Alucema, ciudad de espera'** dokumentala. Hilaren 16 eta 17an. Euskadiko marrokiarren



Misterioso asesinato en Manhattan-eko une bat. HITZA

elkarteko Jatabiren hitzaldia ere izango da. Ereite elkarteak antolatuta, 19:30ean.

Odol-ematea. Odolk emailleen hileroko odol ateratzea, 18:00etan.

LEIDOR ARETOA

Fernando Saunders. Estatubatuarren kontzertua gaur, 20:30ean.

'La vida de los otros.' Gaurtik etzira arte izango da ikusgai filma.

'Rebelion en la isla.' Bihar izango da gaztetxoei zuzenduriko filma.

'Tiempos de amor, juventud y libertad.' Zine forum saioan, hilaren 10ean.

Rodrigo Leao & Ludovico Einaudi. *Mundua Tolosan* zikloaren bigarren kontzertua, hilaren 11n, 21:00etan.

Euskal dantza ikuskizuna. Lizardi Kultur elkarteak antolatuta, hilaren 12an.

'El buen pastor.' Hilaren 12tik 14ra izango da filma ikusgai.

'Azur eta Asmar.' Hilaren 13an, gaztetxoen zinema euskaraz.

'El libro negro.' Zine forum saioan, hilaren 17an.

'Misterioso asesinato en Manhattan.' Antzerkia, hilaren 18an. Quique San Francisco aktoreen artean.

'Erreka Mari.' Txotxongilo taldearen lana, hilaren 19an, 17:00etan.

'Las vacaciones de Mr. Bean.' Hilaren 19tik 21era filma ikusgai.

'La Masai Blanca.' Hilaren 21ean, Ereite elkartearen jardunaldien baitan izango da ikusgai filma.

'Piratas del Caribe 3.' Hilaren 24ean filmaren estreinaldia izango da. 28ra arte izango da ikusgai.

'La noche del cazador.' Zine forum saioan, hilaren 24an.

Tango ikuskizuna. Arrabal taldearen eskutik, hilaren 25ean.

Umama 2. Hodeiertz abesbata eta Juantxo Zeberioen jazz laukotea, hilaren 26an.

Tolosako Musika Banda + Popolo eta Mokolo. Musika Eskolak antolatutako aste musikalarren barruan, hilaren 27an.

'Together.' Zine forum saioan, hilaren 31n.

BESTERIK

Fabulen aretoa. Haur liburute-gian, hilaren 11 arte.

Done Jakue Bidearen 2. As- tea. Hilaren 13ra arte.

Tolosako Musika Banda. Laukote batekin ariko da gaur, Bonberenean, 22:30ean.

Lizardiren asteberu kulturala. Hilaren 11, 12 eta 13an.

Disko Festa. Hilaren 12an, Beotibar pilotalekuan. Sarrerak salgai Gazte Topagunean.

Interneten Nazioarteko Eguna. Gipuzkoa Encounter-en jarraipenez, Internet & Euskadi elkarteak antolatuta Zerkausian, hilaren 16 eta 17an.

Mal de Ojo. Fronton kafetegian kontzertua, hilaren 18an.

Udaberri. Dantzari taldearen 50. urteurreneko dantza ikuskizuna, Beotibarren hilaren 19an.

Kulturen Azoka. Ereite elkarteak antolatuta, Plaza Berrian hilaren 19an, egun osoan.

Naturaldia. *Klima aldaketaren aurka borrokatzeko Euskadiko estrategia* hitzaldia Xabier Cañoren eskutik, hilaren 23an.

13. Musikaria. Hilaren 26tik ekainaren 1a arte, Udal Musika Eskolak antolatutako aste musikala.

Xake Azkarra Txapelketa. Hilaren 26an Berdura plazan.

KULTURA ▶

Lizardik asteberu kulturala antolatu du

Hilaren 11, 12 eta 13an dantza, kalejira eta bazkaria izango dira, besteak beste

ERREDAKZIOA

Lizardi Kultur elkarteak datorren astean, hilaren 11, 12 eta 13ko asteberu kulturala antolatu du.

Ostirala kantuan-ekin hasiko da egitaraua. 20:00etan Alde Zaharrean zehar kalejira egingo dute txistulariekin, tabernaz tabernako txikiteo herrikoia eginaz. Aurretik, 19:30ean kantu liburuak banatuko dituzte Lizardin nahi duen orok parte har dezan. Hurrengo egunean, hau da, *Larunbata dantzan*, adin ezberdineko dantzariak izango dira protagonistak. 10:30ean dantzari txikiak Trianguloan elkartu ondoren Tolosako kaleetan zehar dantza ariko dira; 18:00etan Berdura plazan izango da dantza saioa, dantza talde ezberdinetako gaztetxoekin; 22:30ean, Alurr eta Udaberri taldeak ariko dira Leidor aretoan. Tolosaldean ezagunak diren Alurr eta Udaberri dantza taldeetako dantzariak ere ariko dira bertan.

Asteberu kultural honi amaiera emateko *Igandea marxan* izango da azken eguna. Egun honetan, herri bazkaria antolatu dute Zerkausian. Antolatzaileek norberak bere jakiak eman beharko dituela azaldu dute, baina hori bai, Lizardi elkarteak 300 litro sagardo prest izango ditu («bazkaltzera animatzen diren guztion artean daztatzeko»). Edariaz gain, mahaia eta platerak ere Lizardik jarriko ditu. Bazkari honen inguruan ondorengo ekitaldiak prestatu dituzte: Bazkari herrikoiaen aurretik, 12:30ean, txarangak eta trikitixak alaituko duten kalejira egingo dute. Lizardi elkartetik abiatuko da kalejira. Ondoren, 14:30ak aldera izango da bazkaria Zerkausian. Txaranga eta Kupela taldearen musika izango da giroa alaitzeko, eta baita bertsolariak ere. «Euskal giroa sortzeko helburuarekin», antolatzaileek bertaratzen diren guztiei euskal jantziekin antolatu deia jantzen diete.

MUSIKA ▶

Tolosako Musika Bandak kontzertu «berezia, sekula ikusi gabekoa» eskainiko du gaur Bonberenean

22:30ean izango da, Bonberenearen 10. urteurrena dela eta antolaturiko ekitaldien baitan

ERREDAKZIOA

Berrikuntza batekin dator oraingoan Tolosako Musika Banda, izan ere, gaur kontzertu berezi bat eskainiko baitu Bonberenean, «sekula ikusi gabekoa», arduradunek dioten bezala. Gainera, Bandak kontzertu honetarako egitarau eta laguntzaile bereziak izango ditu: Rolling Stones, Otis Reading, Jazz Suite, Bonberenea, Txuriko, Las Playas de Rio...

izango dira gaiak eta seikote baten laguntza izango du, denak musikari ezagunak Tolosaldean, Bandako kide edo ohiko kolaboratzaile diren Juantxo Zeberio teklatuan, Jon Arruebarrena saxofoian, Iban Gurrutxaga gitarran, Mikel Atxega baxuan, Gorka Otamendi baterian eta Jone Otxoa ahotsean.

Bonberenean jarduera handiko hamar urte bete ditu aurrean eta herriko adin guztietako

jendeari zabaldu nahi dizkio bere ateak. Horregatik hilabete osoan zehar antolatu dituzten urteurrenaren ekitaldien barruan, Tolosako Musika Banda gonbidatu dute parte hartzera. Aipatu behar da Bonberenea Txarangako kide gehienak Tolosako Musika Bandako kideak edo Udal Musika Eskolako ikasleak direla. Horrela duela hilabete batzuk kontzertu hau elkarlanean prestatzen hasi ziren, txarangaren pieza batzuk

moldatzen eta beste doinu eza- gun batzuk prestatzen, eta gaur izango da emanaldia Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean, 22:30etik aurrera Bonberenea ondoko futbol zelai- an, partaide guztiek sartzeko jarriko den eszenatoki batean. «Egitarau berezia izango da», diote antolatzaileek, eta «hori dela eta, herritar guztiak daude gonbidatuta». Kontzertu honetarako sarrerak doan izango dira.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Otañori omenaldia bertsoan

Eskola zaharreko sei bertsoari egingo dute saioa gaur, 18:00etan, Intxaurren



Biharko saioan ariko direnak: Patxi Etxeberria, Joxe Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia eta Mañukorta. HITZA

IMANOL GARCIA

Bertso saio berezia antolatuko dute gaurko Zizurkil Goiko Intxaurre pilotalekuan, 18:00etan hasita. Berezia gaiaren aldetik eta baita parte hartuko duten bertsoarien aldetik ere. Aurtengo Maiatza Saltsan kultur egitarauaren ardatza Pedro Mari Otaño bertsolari eta idazle zizurkildarra da. Aurten bete dira 150 urte jaio zela. Bere omenez egingo da bertso saio hau eta bertan eskola zaharre-

ko bertsolariak parte hartuko dute.

Patxi Etxeberria, Joxe Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia eta Mañukorta ariko dira bertsoan. Gai jartzen, berriz, Anjel Mari Peñagarikano. «Gai jartzaile lanetan aritzeari baiezkota eman nion gaiarengatik eta baita bertsolariengatik ere», dio bertsolari anoetarrak. Izan ere, lotura estua du Peñagarikano Otañorekin: «Soldaduskara bere liburu bat

eraman nuen eta buruz bertso asko ikasi nituen. Herriminazeta aritzen zen eta ni orduan ere horrela sentitzen nintzen. Barruraino satu zitzaizkidan bertso horiek».

Peñagarikano Otañoren bertsoen inguruko gaiak plazaratuko ditu saioan. «Bada Otañoren bertso famatu bat, esaten duena *Zein dira txarrrak, besteak bai gu ez, indarra nagusi eta gogorra juez*. Horren inguruan-eta jarriko ditut gaiak», dio anoetarrak. Zizur-

kilgo bertsolariaren inguruko az gain beste batzuk ere tarte-katuko ditu.

Bertsolarien maila ere aipatzen du Peñagarikano. «Egun plazan hainbeste aritzen ez badira ere, punta-puntan ibilita-koak dira. Gazteek esango zuten bezala, dinosaurioen jaialdi bat izango litzateke. Bertsoan egiteko beste modu bat daukate, askotan gazteak aho-zabalik uzten dituen. Beste euskara bat, beste esamolde batzuk erabiltzen dituzte».

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Andatza Eguna ospatuko dute Zizurkilgo eta Usurbilgo herritarrek

Hamaiketakoarekin hasi eta gero, herri kirolak, jolasak eta bazkaria ere izango dira

ERREDAKZIOA

Beste behin ere Usurbilgo eta Zizurkilgo herritarrek elkartuko dira bihar Andatza Egunean. Festa herrikoia hamaiketakoarekin hasiko da. Salda, txorizoa eta haragi egosia dastatzeko aukera izango dute Andatzara joaten direnek, edarriekin lagunduta. Horren ondoren, 12:00ak inguruan herri ki-

rolak ikusi ahalgo dira eta nahi duenak haurrentzako eta helduentzako prestaturiko jolasetan parte hartu ahalgo dute.

Bazkariaren txanda etorriko da ondoren. 14:00ak aldera aurreikusten da hasiera. Bakoi-tzak bere bazkaria eraman behar du. Kafea eta kopa doan banatuko dituzte nahi dutenentzat. Goizean zehar trikitilariak eta bertsolariak ariko dira.



lazio Andatza Eguneko une bat. JOXIN AZKUE

IRURRA ▶

Udalak GPSari buruzko ikastaroa antolatu du

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak maiatzean antolatu ohi duen Kultur As-tearen baitan *GPS bidezko orientazioa mendian* ikastaroa jarri du martxan aurten-ko ekintzen artean. Kulturunean emango dute atal teori-koa eta atal praktikoa Aiako Pagoeta Parkean. Hilaren 15ean eta 16ean 19:00etatik 21:30era izango da atal teori-koa eta hilaren 19an egun guztian zehar atal praktikoa.

Mendian galdu gabe ibiltzen ikasi nahi dutenei eta orientazioko gutxieneko kontzeptuak dakizkitenei zuzendu die ikastaroa. 16 urte baino gehiago izan behar dute Izena ematen dutenek eta lehentasuna izango dute Iruran errolatutakoak. 20 euroko kostua izango du ikastaroak. Izen-ematea udal-letxeko kultura bulegoan 15:00ak arte, liburutegian 19:00ak arte, 943 69 13 33 zenbakian edo kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz egin daiteke, hilaren 11ra arte.

VILLABONA ▶

Behar-Zana taldearen errebote partida, bihar

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Errebote Txapelketako beste partida bat izango dute bihar Behar-Zana jokalariek. Oraingoko Hendaia-ko errebote plazan jokatu dute, 15:00etan, Endaiarrak taldearen aurka.

urteurrena ▶

Lehenengo urteurrena

Maria Otegi Garmendia

andrea
2006ko maiatzaren 1ean hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Haren senarra: Angel Larrarte; seme-alabak: Jose Angel eta Alaitz Etxaniz, Luis Mari eta Imanol Etxeberria, Jasona eta Inigo Huegun, Miren eta Jon Urriza; bilobak: Iratxe eta Saioa, Ander eta Leire, Manex eta Beñat; anai-arrebak: Gloria, Sebastian, Benita, Fidel, Inaxi, Manuel eta Juanita; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otolat bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela. BIHAR IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, Zumarragako ANDRE MARI JASOKUNDE parroki elizan egingo den urteurrenoko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Urdaneta 10, 3. esk.

ZUMARRAGA, 2007ko maiatzaren 5a

urteurrena ▶



I. urteurrena

Margarita Murua Unanue

(Martzel Eizagirreraren alarguna)

2006ko maiatzaren 8an hil zen, Aduan, 80 urte zituela.

-Golan bego-



Asteartean beteko da urtebete gure artetik joan zinenetik, baina jakizu present zaitugula; segi atsedenean

Zure seme-alaba, biloba, birlobak eta senideak

Urteurren meza, BIHAR IGANDEAN, eguerdiko HAMABIETAN, Zestoako parroki elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.

ZESTOA, 2007ko maiatzaren 5a

HILBERRIAK
URTEURRENEN
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPIZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

Belar goxoa dastatzera

Guztira 45 behi eraman zituzten atzo Ezkeltzura herriko zortzi baserritatik, III. Larre Irekiera ekitaldia eginez

IMANOL GARCIA

Herriko zortzi baserritako 45 abelburu eraman zituzten atzo Ezkeltzura, III. Larre Irekiera eginez. Guztira 38 hektarea dituzte behiek bertako belarra dastatzeko. Eguraldi haizetsu eta desatsegina egin zuen eta horrek baserritarrez gain jende gehiago joatea eragotzi zuen. Ainhoa Azpeitia teknikariak azaldu duenez, «kime-

maren arrakasta ikusita, datorren urterako beste 20 hektarea prestatuko dira».

Hain justu, datorren urterako beste baserritar batzuen eskaria ere jaso du Udalak, Ezkeltzura bere abereak eraman ahal izateko, tartean ardiak ere. Azpeitiak nabarmendu duenez, ekimenak herriko baserritarren arteko «harreman dinamika bat sortzeko balio izan du eta hori da positiboen».



Ezkeltzuko III. Larre Irekieran parte hartu zutenak. I. GARCIA

IÑAKI OIARBIDE ▶ ABELTZAINA

«Larre horiek utzitza zeuden eta orain behiak eraman ahal ditugu»

Izibar baserriko Iñaki Oiarbide (Idiazabal, 1977) da Ezkeltzura abelburuak eraman dituenetik bat.

Aurten zenbat abelburu erango dituzu Ezkeltzura?

Esnetarako bigak eramango ditut, guztira sei buru.

Noiz arte izango dituzue behiak larre horietan?

Irailaren bukaerara arte egongo dira behiak bertan. Hiruzpalau egunean behin edo joan ohi naiz behiak nola dauden ikustera. Larreen ondoan ikuitua duen batek egunero egiten du bisita.

Hasieratik eraman dituzue behiak Ezkeltzura. Nola ikusten duzu ekimen hau?



I. GARCIA

Ondo ikusten dut. Kalterik ez du ekartzen. Larre horiek utzitza zeuden eta txukun jarri ondoren behiak eraman ahal izan ditugu. Egin beharreko lanak auzolanean egin ditugu.

Udaletik azpimarratu dutena da baserritarren arteko dinamika bat sortu dela.

Koordinazio bat dago eta beharren bat sortzeko bada, bildu egiten gara eta erabakiak hartu.

Larre falta al zegoen horrela-ko ekimen bat bultzatzeko?

Herrian larre falta handirik ez dago, baina ondo etortzen da larre horiek izatea. Horrela, baserri ingurukoak hobeto gorde ahal ditugu. ◀



Behi esneak larreetarako bidea egiten. I. GARCIA

ANOETA ▶ LITERATURA

Andersen idazleari buruzko erakusketa ikusgai asteazkenara arte kiroldegian

ERREDAKZIOA

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, Anoetako Udalak Andersen idazlearen ipuinetan oinarritutako erakusketa jarri du ikusgai kiroldegian, datorren asteazkenara arte. Ordutegia asteleheneetik ostiralera (10:00-12:30 eta 15:00-21:00), eta larunbatean (09:00-13:00). Atzo Ikastolako ikasleek bisita gidatua izan zuten.



Ikastolako ikasleek atzo egindako bisitaren une bat. HITZA

AMASA ▶ KIROLAK

Loatzoko igoera-jaitsiera egingo dute bihar

ERREDAKZIOA

Bihar goizean Loatzoko XV. Igoera-Jaitsiera antolatuko dute Uxo-Toki elkarteak eta Amasako gazteek. Parte hartu nahi dutenek izena Uxo-Tokin bertan eman beharko dute, doan. 10:30ean abiatuko dira Amasatik (90 m.) eta Loatzora (631 m.) igo eta jaitsi beharko dute parte-hartzaileek. Bertan izan ditzaketen istripuen ardura ez

dutela antolatzaileek izango jakinarazi dute.

Igoeran parte hartzen dutenen artean arkumea, oilaskoa, txuleta, ... zozketatuko dituzte, eta, nahi duenarentzat, ha maiketako ere prestatuko dute Loatzon bertan. Sarietako dagokienez, emakume nahiz gizonezko kategorietan lehen hirurek jasoko dute saria, 120 euro eta txapela, 80 euro eta 60 euro, hurrenez hurren.

EUSKAL PRESOK ▶

Etxerategen dekalogo bat osatu du hautetsi guztiei aurkezteko

Horrela, «euskal presoaren eskubideak bermatzeko» konpromisoak bildu nahi ditu

ASIER IMAZ

Tolosaldeko Etxerategen prentsaurrekoa eman zuen atzo Lizartzan euren senideek «bizi duten oso egoera larria» salatzeko eta honen aurrean, Etxerategen eginiko VI. nazio batzaren harturiko erabakien berri emateko.

Dekalogo bat osatu dute *Euskal Presoak Euskal Herri-ara. Dagozkien eskubideen jabe* izenarekin. Bertan Presoen «oinarriko eskubideak» aldarrikatzen dituzte, hala nola, osasun, hezkuntza, amatasun eta aitasun eskubidea eta Euskal Herrian kolektibo gisa, elkarrekin bizitzeko eskubidea.

Hauteskunde garaia denez, Etxerat elkartek jakinarazi du «posizionamendurik ez duela hartuko». Baina hautetsi izateko aurkeztuko direnengana joango direla dekalogo eskue-tan dutelarik. «Mundu guztia-ren konpromisoak behar»



Tolosaldeko Etxerategen Lizartzan eman zuen prentsaurrekoa atzo. HITZA

dituztela azpimarratu zuten. Behar honen arrazoiak izendatu zituzten ondoren: «Estatuaren inpunitearekin amaitzeko, estatuaren bortxakeriarekin amaitzeko, preso gaixoak eta zigorrak bete dituztenen infernuarekin amaitzeko, bizirik

etxeratuz». Halaber, senideek bai eta eurek ere, «hil edo fisikoki eta psikikoki atzeraezinezko ondorioak eragiten dizkigun espetxe politika betirako amaitzeko eta senideak eskubide guztien jabe izanik Euskal Herriratzeko», exijitu zuten.

Lizartza topagune

Garikoitz Etxeberria eta Aitor Agirrebarrenaren kasuak, «euskal preso politikoaren eskubide murrizketaren islada argi eta garbia» direla salatu du Tolosaldeko Etxerategen. Bi preso lizartzarrak albiste izan dira azken asteetan «eskubide zapalketak direla medio». Garikoitz Etxeberriari Frantziaren eginiko ustezko delituak Espainian epaitu nahi dizkiote, lehen aldiz erabiliko litzatekeen salaketa ofizialaren bitartez. Aitor Agirrebarrenari berriz sendiko kide baten bisita ukatu zioten, nahiz eta abenduan kide berak arazorik ez izan preso duen osaba ikusteko. «Ondoren gainera» 3 egun igaro zituen Mitardean, preso sozialaren babesaz irten zen arte. ◀

IBARRA ▶

Eman daiteke izena Olinpiada Txikietarako

Ibarrako XIV. Olinpiada Txikietan izena emateko epea zabalik dago jadanik. Taldeek 12 partaide eduki behar dituzte gutxienez eta Benito Izagirre kultur etxean utzi behar dira zerrendak, hilaren 14a baino lehen. Aurtengoan olinpiada herrikoiak egun bakarrean ospatuko dira: maiatzaren 19an, larunbata, arratsaldean.

IBARRA ▶

Marrakizi lehiaketa, jaien egitarauerako

Ibarrako jaietarako marrakizi lehiaketa antolatuta dute. Marrakizietan derrigorrezkoa izango da San Bartolome Jaiki 2007 eta herriko armarrira agertzea. Ekainak 15erako aurkeztu behar dira lanak Benito Izagirre kultur etxean. Marrakiziek aurkeztu ahal izateko, haurrak Ibarran bizi behar du, edota bestela, bertan ikasi.

BERROBI ▶

Ekitaldiz gainezka dator Kultur Astea

Astelehenean 17:00etan hasiko da Berrobiko XVII. Kultur Astea suziri eta buruhandiek. Orduerdi berandua, herriko haurrek dantza emanaldia eskainiko dute eta eguna amaitzeko tango mota desberdinen emanaldia antolatuta dute Etxola-solastokian. Igandera arte iraungo duten kultur ekitaldien artean, eskulan erakusketak, ipuin kontalariak, sukaldaritzako erakusketak eta pailazoez gozatzeko aukera izango dute, besteak beste herriarrek.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 635 74 52 91 edota 943 69 43 13 telefono zenbakietara.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

SALGAI

Autoa. Citroen Saxo VT5. 90 zaldi. 116.000 kilometro. Interesatuak deitu 651 70 90 2 telefono zenbakira.

IBARRA ▶

Garagardo Festak ireki ditu ateak

A. Imaz ▶ Unai Otaño, aizkolaria; Maite Artola, kazetaria eta Eneko Arizaren Lagunak Kultur Elkartearen omendu zituzten atzo, Garagardo Festako irekieran, bakoitzak bere alorrean egin duen lanagatik. Oroigarri bat eta zinta mozteaz gain, lehen garagardoa ere beraiek edan zuten. Garagardo Festak igandearte jarraituko du. A. IMAZ



hilberria ▶

Jazinto Imaz Katarain

(Mariana Ugalderearen alarguna)



Herenegun hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Bere animaren zuzendaria: Txelis Agirretxe; seme-alabak: Juan Mari eta Goretti Gorrotxategi, Lourdes eta Ximon Goia, Karnele eta Joxe Arrieta, Iñaki eta Karnele Arruabarrena, Rafa eta Laura Ormazabal; bilobak: Nerea, Mikel, Garazi, Naiara, Anaitez, Eluska, Manex, Iñigo, Aitor eta Iker; anai-arrebak: Trinidad (†) eta Gonzalo Mora (†), Dionisio (†) eta Damiana Astiazaran (†), Manuel (†) eta Antonia Gogortza (†), Pedro eta Juliana Alkorta (†), Rafael (†) eta Pilar Gerniko, Ines eta Inazio Ormazabal (†); Maria Ugaldere; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilberria ▶ Errebele auzoa, 5

oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierri beltatikian egongo da

SEGURAN, 2007ko maiatzaren 5ean

ERRETENGIBEL SALGAI

1.- Solana 4. zenbakiko behe solairuko bi lokal lote bakarrean, lehiaketa bidez.
2.- Toriles Eraikuntzan behe solairuko lokala, enkante bidez.

Informazioa:
ERRETENGIBEL,
Plaza Zarra 10 beheak.
Tel.: 943670892
Posta elektronikoa:
erreten@tolosakoudala.net

ARAMBURU

Alokatzeko (Salou).
Apartamentua, 2 fogela, 7 ohe, aire gutrieta eta igerilekua, Hondariztas ondoan.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Pisua, Araba etorbidean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, Araba etorbidean irekia eta lurren itxia.
Salgai (Tolosa). Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai (Tolosa). Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian, Salgai.
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarran, Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor aspian eta Larremendi kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSA ▶ KULTURA

Bonberenearen 10. urteurrena ospatuko dute hilabete honetan

Hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatzean zehar: kontzertuak, bertso jaialdia, azoka, hitzaldiak...



Bonberenea hainbat kultur ekitaldiren kokaleku bihurtu da. HITZA

NAIARA GARZIA

10 urte igaro dira jada 1997. urteko maiatzean Bonberenea sortu zutenetik. Hori dela eta, 10. urteurrena ospatzeko helburuarekin maiatzean zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

MAIATZEKO EGITARAUA

The band and bonberenea konexio. Tolosako Musika Bandak eta Bonberenea txarangak elkarrekin joko dute, gaur, 22:30ean.

Azoka berezia. CD eta binilo azoka berezia egingo dute Bonberenean, euskal musikak

eman dituen hainbat rock taldeen diskekin. Azoka maiatzaren 7-12 bitartean egingo dute. **Bertso jaialdia.** Maiatzaren 18an, ostiralean, bertso jaialdia egingo dute Bonberenean hainbat bertsoariarekin.

Ariana Puelloren kontzertua. Ariana Puellok kontzertua eskainiko du maiatzaren 19an, larunbatean, 22:30ean. Artista amerikarrak bere azken singlearen aurkezpena egingo du Bonberenean eta hau izango da bere mundu-biran Euskal Herrian oraingoz eskainiko duen kontzertu bakarra.

Diaporama. *Chupando frio del polo sur a Alaska* izeneko dia-

porama saioa eskainiko du Angel Navasek, maiatzaren 24ean, ostegunean, 19:00etatik aurrera.

Bide Ertzean eta Desordutan. Bide Ertzean eta Desordutan taldeen kontzertua, maiatzaren 25ean, ostiralean, 22:30ean.

Pirritx eta Porrotx. Pirritx eta Porrotxek eta Bonberenea Txarangak elkarrekin emanaldia egingo dute, maiatzaren 26ean, larunbatean, 17:00etan. Pirritx eta Porrotxek haien azken antzezlan eskainiko dute: Mari Motots.

Sextabaida. Sexualitateari buruzko mahai-ingurua maiatzaren 31, osteguna, 19:30ean.

LEITZA ▶

Aurrerako pilotariak Lizarrako Txapelketan

N. GARZIA

Asteburu honetan Aurrera Pilota Eskolako pilotariak Lizarrako txapelketan buru-belarri ariko dira. Honela, osotara lau izango dira jokatuko dituzten partidak, hiru gaur eta bat bihar.

Gaur jokatuko dituzten hiru norgehiagokak 09:30ean hasiko dira. Oinatz Mariezkurrena eta Josu Zabaletak ordu horretan hirugarren partida jokatuko dute, hasiberrien mailan. Joxerra Aldaregiak eta Mikel Onsalok zortzigarrena eta Xabier Jaunenak eta Andoni Arocenak, berriz, hamargarren norgehiagoka. Azkeneko bi bikote hauek haur-kategorian ariko dira.

Bestalde, bihar ere Lizarrako Txapelketan Lizarran hainbat norgehiagoka jokatuko dituzte herri ezberdinetako pilotariak. Leitzakoek, ordea, bihar bakarria izanen dute. Ordua berbera izanen da, 09:30, eta Mikel Hernandezoren izanen da Aurreratik jokatuko duen pilotaria. Baina ez da bakarrik ariko, Irurtzongo Carrasco pilotaria lagun izango baitu bihar. Carrascok eta Hernandezorenak ere haur-kategori barruan jokatuko dute.

LEITZA ▶

Altzariak eta tresnak biltzeko zerbitzua

Udalak Landa Industrialdean duen nabeko hesia itxi du, altzariak eta horrelako trasteak pilatu ez daitezten. Arazo hau saihesteko Udalak aspaldi martxan jarri zituen dohainik ematen diren bi zerbitzu hauek: obren hondakinak pilatzeko edukiontzia batetik, eta tamaina handiko zaborrak biltzeko etxe-ko zerbitzua, bestetik. Horrelako pilaketak ekiditeko bi zerbitzu hauek 012 telefonorearen bitartez erabiltzea gomendatzen du Leitzako Udalak.

LEITZA ▶

Tanatorio eta SÖK taldeak gaur, Gaztetxean

Gaur, 23:00etan, Tanatorio eta SÖK taldeak Leitzako Gaztetxean joko dute. Bertan eskaintzen diren kontzertu gehienetan ohikoa den bezala, ez dute sarrerarik kobratuko. Gaztetxeko arduradunek borondatea eskatzen dute sarreraren truke. Tanatorio eta SÖK taldeak Iruñerrikoak dira. Arduradunek azaldu dutenez, «beharbada ez da jende gehiegi bilduko», Ibarren eta Goizuetaen ere ospakizunak antolatu baitituzte gaur gauerako.

Fernando Saunders
TOLOSA
maiatzak
5
larunbata
20:30
LEIZOAN

MUNAZABAL altzariak
• 500 m² bi solairutan
• Bertako okasiozko altzariak
• Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:
Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...
Tel.: 943 65 17 61
San Inazio 2
TOLOSA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

OREXAKO UDALA
ORRORAL PIRRIK
ORRORAL HERRIARRA
ONDO PASA OREXAR GUZTIAK



AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Gaztetxean, bi kontzertu izango dira 22:30etik aurrera: Jikuri (Zarautz) eta Arbaso (Ondarroa).
Ibarra. Ibarratik Misisio Taldeak, Belabietako Kiroel Elkartearen laguntzarekin, XII. Elkartasunezko Aerobik Maratoia antolatuko du Belabietako kiroldegian 16:30ean.
Ibarra. *Sua* filmaren eszena grabaketa izaskunen 14:00etan; 18:00etan Ibarra IV. Garagardo Festaren irekiera; irritzi txapelketa; ondoren DJen saioa eta 22:30ean Kerobia eta Ezinean taldeen kontzertua Gaztetxean.
Tolosa. Tolosako Musika Bandak eta The band and- en kontzertua Bonberenean 22:30ean.

JAIAK

Asteasu. Egitaraua: 11:00etan, duatloia; 15:30ean, mus txapelketa; 16:30ean, txupinazioa eta Ximonen jaitziera. Ondoren, haur jolasak; 19:00etan, Eriz magoa; 20:30ean, afora Erretore Etxean; 23:00etan, Kupela taldea. Goizaldean, zezen suzkoa.
Orea. Egitaraua: 16:00etan, ume jolasak, Xiba taldearekin; ondoren merienda. 21:00etan, afora eta 00:00etan Imuntzo eta Beloki. Ondoren, DJ Bull eta baratzuri zopa. Kalejira Gari eta Iñaki trikitalariekin.

ZINEMA

Tolosa. *La vida de los otros* filma Leidorren gaur 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegan.*

Goiko irrateria (107.0 FM)
12:00. *korrera.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HITZAren aldeko artea

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Lea-Artibai eta Mutrikuko HITZAren aldeko arte enkantea antolatuko dute Markina-Xemeinen; atzo inauguratu zuten erakusketa



Atzo, inaugurazioaren une batean. EIDER MUGARTEGI / LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

ERREDAKZIOA

Lea-Artibai eta Mutrikuko zazpi arte sortzaileen lanekin osatutako *Hitzarte* erakusketak atzo zabaldu zituen atek, Markina-Xemeingo Uhagon Kulturgunean. Jose Pablo Arriaga, Xiri An-

donegi, Felix Beristain, Carlos Baudi, Mikel Lertxundi, Jose Angel Uberuaga eta Eneko Arruza artisten lanek osatzen dute erakusketa. Inaugurazio ekitaldia atzo arratsaldean izan zen, eta maiatzaren 20a arte izango da zabalik. Erakusketak irauten duen

egunetan, sortzaileek enkante honetarako bereziki sortutako lanak erosteko aukera izango dute bisitariak, eta baita lehenago izan arren orain HITZARI eman dizkietenak eskuratzeko ere.

Jose Pablo Arriaga eskultore markinarrak ez du zalantzarik izan ekimen honekin bat egitekoan: «Uste dudalako beharrezkoa ez, derrigorrezkoa

delako horrelako egunkari bat egotea eskualdean». Xiri Andonegi pintore eta eskultore mutrikuarren iritziak, «Hitzak errealitate herrikoia erakusten digu; eta euskaraz izateak baliore erantsia ematen dio».

Felix Beristain pintore ondarrutarra Sarrin bizi da, eta han irakurtzen ditu sorlekuko albisteak: «Arabian bizi naizen heinean, neure herriko berri edukitzeko aukera bakarra dut HITZA». Carlos Baudi Pintorearen arabera, berriz, «herrerako eta herritarrentzako ari da beharrean» HITZA, eta «beraz, herritarren laguntza behar du, guztiona».

Erakunde publikoen diru laguntza politikak argitalpen egunak murrizteko arriskupean utzi du LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA. Horri aurre egin nahian, hainbat ekimen antolatuz dituzte bertako langileak, eta horien arteko bat besterik ez da *Hitzarte*. Hurrengo asteotan, esaterako, Yolanda Arrietak, Leire Bilbaok, Karmele Jaiok, Kirmen Uribe, Ana Urkizak, eta eskualdeko beste zenbait idazlek HITZAREN alde osatu duten ipuin liburua ere argitaratuko da. Ekainaren 17an, berriz, Hitza Eguna antolatuko dute Aulestin, egunkariaren aldeko aldarria eta laguntza emateko aukera festarekin uztartuz.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



URTE ASKOAN
Mikel (Gaztelu). Gaur ebeko txikiak 2 urte. Muxu potolo bat Ainitzeren partetik.

PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com

Maiatzak 7 • Astelehena 17:00

Galarza V - Nalda III
Del Rey - Laskurain

CAPELLAN - LASA III
CHAFEE - GOÑI III

Zubieta - Arruti
(2. mailako Eskuz Banakako Txapelketa)

Tolosako Beotibar pilotalekuan